



## Aresora ere iritsi dira 2006ko Inauteriak

**BIHARTIK** ▶ Igandera arte hartuko dute herria Karnabalek, Lagun Artea elkartearen eskutik

**EGITARAUA** ▶ Eskolako kalejira eta afaria, bihar; otorduak, lehiaketak, musika, eskea... ere izanen dira ▶ 7

**ALEGIA** ▶

**Aurten zuzendaritza izango du jubilatuen egoitzak**

Urtebete gabe pasatu ondoren, talde berria izendatu dute batzarrean ▶ 5

**IBARRA** ▶

**Boluntario izateari buruz, Kultur Astean**

Uzturpeko ikasleak eta Gobernuz Kanpoko Erakundeen kideak, solasean ▶ 6



### Eliza eraberritzeko proiektua, martxan

**IRURA** ▶ San Miguel parroquia berritzeko lanak udaberrian hasi nahi dituzte; beharraz jabetuta, dirua biltzeko kanpainari ekin diote ▶ 4

**NEREA**  
1962

Erremontari kolea z/g  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 16 30  
**LENTZERIA**

**%40** **%30** **2x1**

Helduentzat eta haurrentzat  
Kamisoiak, pijamak,  
neguko batoiak, kamisetak...

**MERKALDIA**

**TOLOSA** ▶

**Pello Odriozola euskal preso politikoaren aldeko ekimenak**

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta, hitzaldia eta mobilizazioak ▶ 3

**TOLOSA** ▶

**Merkatu Txikiak «erantzun bikaina»**

Laskorain Ikastolaren «esker ona» ▶ 3

## KULTURA ▶

# «Erantzun handirik ez»

Kalitate handikoak izan dira 2005ean Aranburu Jauregian jarritako erakusketak, baina «ez dute jendearen aldetik arreta handirik piztu», diote udal ordezkariak

## IRATXE ETXEBESTE

**K**alitate handikoak ekar-tzen ditugu, baina jende askorik ez dute azkenaldian erakartzen». Hitz horiek baliatu zituzten orain bi aste Tolosako Udaleko Kultur departamendukoek urteko erakusketen balantzea egiterakoan. Izan ere, sona handia lortu duten bizpahiru erakusketa kenduta, besteetan «urria» izan da 2005ean Aranburu Jauregiara bildutako ikusleen kopurua. Eskualdeko Irazki elkarte kulturantzak antolatutako *IpuinArtean* eta CIT-TEE Tolosako Ekinbide Etxearen *Indiara leihoa*, Txotxongilo Jaialdiko, dira aurtengoan arreta gehien piztu dutenak.

Aranburun egun gutxi batzuetan baino egon ez diren erakusketek ikusle gutxiago erakarri dituzte, orokorrean. Irazki elkarteak antolatutakoa da iaz egun gehien ikusgai izan zena —zehazki, 37—, eta guztira 583 lagunek bisitatu zuten; Ortiz de Elgearena eta Txuekarena, berriz, 300 lagunek baino gutxiagok, eta azken hilabetean Aranburuko bi solairuetan izan diren biak, Alejandro Ta-

piaren pintura erakusketa eta Manuel Lasarteri buruzkoa, 120 inguruk.

2005ean 164 erakusketa egun izan ziren guztira Aranburu Jauregian, eta 1.718 ikusle bildu ziren denera; eguneko, batez beste, 10,48 ikusle. «Erakusketen maila ikusita, kopuru hori eskasa dela aitortu behar dugun», onartu dute udal teknikariak, eta aurrera begira «aldaketa batzuk» egiteko beharra ikusi dute.

Esate baterako, eta Aranburu Jauregiko egungo banaketari dagokionean, honezkeror erabaki dute erakusketa guneak hartzen dituen bi solairuetatik batean aldatu egingo dutela erabilera.

Aranburu Jauregiak hiru solairu ditu, eta lehen bietan daude jarrita erakusketetarako aretoak. Azkenekoan, berriz, helduen liburutegia dago. «Erabilzaile kopuruari begiratu gero, txiki geratu dela esan beharko genuke», diote udal ordezkariak. «Haur Liburute-

gia Errotara lekualdatu genuen duela gutxi, eta bistakoa da erabaki hori aproposa izan dela oso, liburutegiko erabilzaileak asko ugaritu direlako azkenaldian».

Udal arduradunen esanetan, baina, liburutegiaren proiektua «ez da hor geratzen». Haurrena Errotan kokatuta, orain «helduenean esku sartu nahi» dutela adierazi dute: «Leku falta bakarrik ez da arazo gaur egun; teknologia berriak ere sartu behar ditugula iruditzen zaigu, eta horretarako ezinbestekoa da Aranburu Jauregian moldaketak egitea».

## Aldaketak Aranburun

Bada erakusketa ezberdinetarako atonduta dauden bi guneetatik bat kendu, eta liburutegi bilakatu dutela iragarri dute udal arduradunek: «Bi solairu emango dizkiogu liburutegiari, eta erakusketa gela azpialdean geratuko da». Modu horretara, herritarrei eskainitako zerbi-

tzua «hobetuko» dutela uste dute. Izan ere, erakusketetak jartzeko gune bakarra «nahikoa» izango da, eta liburutegiaren dagoen leku gabeziari «modu onean» emango diote erantzuna.

Aurrerantzean, baina, ez dute herrira erakusketak ekartzeko lan ildo aldatuko, eta, besteak beste, «Iruñearekin dugun harremana mantentzen jarraituko dugu», adierazi dute udal ordezkariak. Iruñearen eta Tolosaren artean bada elkarlan bat azken urteetan erakusketen alorrean, eta Iruñetik pasatzen diren erakusketa asko Aranburu Jauregian jartzten dituzte, eta alderantziz. Elkarlan horri «interesgarri» irizten diote udal ordezkariak, eta maila altuko erakusketak herrira ekartzeko bidea ematen duela esan dute.

Bestalde, 2006an «gero eta ikuskizun hobek» ekartzen ahaleginduko direla diote udal ordezkariak; tartean dira Aranburuko erakusketak ere.

## XAKEA ▶

## Eskualdeko ordezkariak lehen postuetan Eskolartekoan

Tolosa-Ibarra A taldea ere Gipuzkoako Ligan aritu zen, eta 1,5 eta 2,5 irabazi zuen

## ERREDAKZIOA

Pasa den asteburuan Eskolarteko Banakako Xake Txapelketak hasi ziren. Lehen saioaren ondoren, Aitor Alkorta eta Xabier Corredera dira lehenak infantiletan, biak ala biak Jesusen Bihotzakoak (Villabona). Atzetik puntu batera Hirukideko (Tolosa) Jokin Mendia dute. Alebinetan, berriz, lehena Muñagorri ikastolako (Berastegi) Beñat Salbarredi da. Bigarren postuan Uzturpeko (Ibarra) Jon Romero dago, puntu erdira. Atzerago, Anoetako ikastolako Xiker Urkia da hirugarren.

Nesketan, berriz, lehena Anoetako ikastolako Oihana Etxenike da. Oso gertu, bigarren, Jesusen Bihotzako (Villabona) Ane Chaparro dago. Datorren igandean, txapelketen bigarren saioa jokatu da, 11:00etatik aurrera, Tolosako Xake Elkartearen Txapelketa hauetatik aterako dira Gipuzkoako finalak jokatu dituzten eskualdeko ordezkariak. Finalak Donostian izango dira, apirila hasieratik aurrera.

Bestalde, Gipuzkoako Ligan, Tolosa-Ibarra A taldea Andoainen izan zen hango Agustin de Leitzarekin jokatzen, 1,5 eta 2,5 irabazi zuen: Etxeberriak eta Barojak irabazi egin zuten eta Mujikak, aldiz, berdindu. Hirugarren Mailan, Tolosa-Ibarra B taldeak atsedena izan zuen eta, hortaz, datorren jardunaldira arte itxaron beharko dute jokatu ahal izateko.



laz, irailean, *IpuinArtean* egitasmoaren erakusketa inauguratu zuten Aranburu Jauregian. IMANOL GARCIA

## DATUA

164 erakusketa egun izan ziren Aranburun Jauregian eta 1.718 ikusle; 10,45 eguneko, batez beste

## ELKARLAN

Tolosaren eta Iruñearen artean elkarlana dago: handik pasatzen diren erakusketa asko Aranburun jartzen dira

## urteurrena ▶



## eskertza ▶



**M<sup>a</sup> Cruz Aizpurua Olaizola**  
-Goian bego-



Haren familiakoek asko eskertzen dizuegu hiletara etorri zinetenei, baita samin-agurra bidali zeniguten guztioi ere.

AIA-ORION, 2006ko urtarrilaren 26an

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan**  
**50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio bereragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

## POLITIKA ▶

## «18 urte borrokan eta erresistentzian»

Pello Odriozola presoaren aldeko ekimenak iragarri ditu Amnistiaren Aldeko Mugimenduak

**I. ETXEBESTE**

«Larunbat honetan beteko dira 18 urte Pello Odriozola euskal preso politikoa atxilotu zutenetik, Edorta Agirre tolosarra eta Antton Otamendi *Muxar* zizurkildarrarekin batera. Azken biak kalean aurkitzen badira jada, Pellorentzat ez da sufrikarioa amaitu, bere senitarte-

koentzat bezalaxe. Berehala, Alcalá-Mecón espetxeratu zuten, kartzelaldi luzeena Herre-  
 ra de la Manchako esterminio  
 espetxean igarotzeko», esan  
 dute Tolosako Amnistiaren Al-  
 deko Mugimenduko kideek.  
 «Ia-ia 7 urte dira Ourenseko  
 espetxean aurkitzen dela eta  
 hauetatik azkeneko hiru eta er-  
 diean espetxe horretan aurki-

tzen den euskal preso politiko  
 bakarra da, isolamendua era-  
 batekoa izanik. Tarte horretan,  
 bakarrik diligentzietarako  
 trasladatu dute Valdemoroko  
 espetxera, edota Martuteneko-  
 ra egun batez, bere aitaren  
 ehorzketara joan ahal izateko».

Pello Odriozola tolosarrak 18  
 urte «bizi-baldintza duin ba-  
 tzuen alde borrokan» pasatu

dituela salatu dute Amnistia-  
 ren Aldeko Mugimendukoek,  
 eta denbora horretan hainbat  
 helburu izan dituela: «Espetxe  
 barruko egoera aldatzea, isola-  
 menduari aurre eginez, erre-  
 sistituz, gaur egun, oraindik  
 lortu ez duten estatus politiko-  
 aren aitortza aldarrikatzea».

Hori dela-eta zenbait ekimen  
 antolatatu ditu Tolosako Amnis-

tiaren Aldeko Mugimenduak  
 aste honetarako: gaur, esatera-  
 ko, hitzaldia izango da udale-  
 txeko udalbatzar aretoan; Jon  
 Enparantza abokatuak eta pre-  
 so ohiren batek hartuko dute  
 parte bertan, 19:30ean hasita.

Bihar, hileko azken ostirala  
 izanik, Etxerat elkarteak anto-  
 latzen duen kontzentrazioa  
 egingo dute Trianguloan ordu  
 berean —19:30ean, hain zuzen  
 ere—, eta etzi manifestazioa  
 izango da, 19:00etan, Triangu-  
 lotik aterata. Herritarrak eki-  
 metetan parte hartzera gonbi-  
 datu dituzte.

## GIZARTEA ▶



Bikaina izan da, aurten ere, Gabonetako Merkatu Txikiak herritarren aldetik izan duen erantzuna. I. ETXEBESTE

## Merkatu Txikiak izan duen erantzuna, ona

Laskorain ikastolakoek eskerrak eman dizkie ekimenean parte hartu dutenei; «egitekoak egunerokotasunean dirau»

**IRATXE ETXEBESTE**

«Laskorain ikastolak antolatatu, eta Ibarrako Misio Taldearen, Taupadak Gobernu Kanpoko Erakundearen, Tolosaldea Sa-  
 hararekin elkartearen eta Tolo-  
 sako Udaleko Gizarte Zerbi-  
 tzuaren laguntzarekin burutu  
 dugun Gabonetako Merkatu  
 Txikiaren balorazioa egitera-  
 koan, aurten ere erantzun bi-  
 kaina jaso duela nabarmendu  
 beharrean gaude», esan dute  
 Laskorain ikastolako ardura-  
 dunek.

Bertan salgai egon diren jan-  
 tziak, jostailuak, tresnak...  
 «Ikastolako guraso, dendari  
 eta gainerako herritarren es-  
 kuzabaltasunari esker» izan

direla, eta urtez urte ekimen  
 horrek jasotzen duen erantzun-  
 a «azpimarragarria» irudi-  
 tzen zaitela esan dute Laskorain  
 ikastolakoek. «Beraz, gure es-  
 ker ona modu batean zein bes-  
 tean ekimen honetan parte  
 hartu duzuen guztiei».

«Benetan pozgarria deritzo-  
 gu Emaus fundazioak bazter-  
 ketaren aurka burutzen duen  
 proiektua eta Taupadak, Tolo-  
 saldea Sahararekin eta San  
 Bartolome misio taldeek dituz-  
 ten asmoak ezagutzeko eta za-  
 baltzeko antolatutako ekintze-  
 tan jaso dugun atxikimendua  
 eta erantzun ona», diote Lasko-  
 rain ikastolakoek beren ekime-  
 nean herritarrek izan duten  
 erantzuna eskertuz.

«Honi esker ehunka gaztek,  
 gurasok, familiak eta herrita-  
 rrek ezagutu ahal izan dugu,  
 azken urte hauetan, hainbat  
 jendek bizi duen gizarte baz-  
 terketa, bai urrutian eta ez oso  
 urrutian; gugandik gertu, bai-  
 zik». Aldi berean, egoera ho-  
 riek leuntzeko eskura duten  
 aukera eta herritarren artean  
 zabaldu nahi duten konpromi-  
 soa «ezagutzera eman» ditela  
 esan dute Laskorain ikastola-  
 koek. «Ziur gaude ekimen xu-  
 me hauen bidez gizarte solida-  
 rioagoaren alde ari garela eta  
 jarraipena izan dezan merze-  
 duela». Eguberrietako aurtun-  
 go kanpaina amaitu da, baina  
 «egitekoak egunerokotasune-  
 an hor dirau».

## KULTURA ▶

## Niki Caro zuzendariaren 'Whale rider' filma, gaur

Zine-klubeko saioa Kultur Etxean izango da, 21:30ean hasita; Zeelanda Berriko filma da

**I. ETXEBESTE**

Niki Caroren *Whale rider* fil-  
 ma eskainiko dute gaurkoan  
 zine-klubaren baitan, Kultur  
 Etxean, 21:30ean hasita. Gure  
 garaiko zinemak estimatzen  
 dituen bi ezaugarri biltzen  
 ditu Zeelanda Berriko filmak:  
 gutxiengo etniko batera ger-  
 turatzea —maoriak, hegoal-  
 deko uharteetako indige-  
 nan— eta narrazioaren gus-  
 tuan duen fedea.

Pairen istorioa azaltzen du.  
 Neska nerabe horren ama eta  
 anaia bikia erditzean hil ziren.  
 «Klanarekin jarrai zezan eta  
 Paiketa irudika zezan, uhartera  
 bale baten gainean heldu zen,  
 eta herriarentzat biziraupena-  
 ren ideala adierazten duen ar-  
 basoa, izenburuak erreferen-  
 zia egiten diona, aitonak mu-  
 tula izatea espero zuen. Beraz,  
 kultura matxista batean ema-  
 kume izateagatik baztertua  
 sentitzen da Pai». Heldutasu-

nerako transizioko garaia ai-  
 tonak erakutsitako maorien  
 kulturaren eta ohituretan parte  
 hartzeko borroka ere bada  
 berezat.

*Whale rider* berezia eta inti-  
 mista da. Zuzendariak elka-  
 rrikketa entzunezina hasten  
 du ikuslearekin eta, gainera,  
 fotograma oro magiaz ingura-  
 tua dago. Baina ez da ohiko  
 magia; kolorez, egituraz, for-  
 maz eta dialogoz beteta dago-  
 ena, baizik. Xumetasunak  
 gauzen benetako balioa era-  
 kusten digu.

Filmeko paisaiak poetikoak,  
 dramatikoak, hunkigarriak,  
 eta, bizitza bezala, batzuetan  
 umoristikoak ere badira. Bes-  
 talde, interpretazioak oso si-  
 nesgarriak dira. Bizikideta-  
 sun moduak onartzeko beha-  
 rrari buruzko istorioa musika  
 partitura bikainarekin amai-  
 tzen da. Gainera, Jainkoari  
 otoitz egitean dagoen harre-  
 man pertsonala...

## KULTURA ▶

## Txarangen bilerara deitu du Jai Batzordeak gaur

**I. ETXEBESTE**

Inauterietan laster izango dire-  
 la-eta Jai Batzordeak bilerara-  
 ko deia egin du gaur iluntzera-  
 ko. Kultur Etxean bilduko dira

batzarrean parte hartzen du-  
 tenak, 19:00etan. Txarangei  
 buruz ariko dira gaurkoan Jai  
 Batzordekoak, eta txarange-  
 ko partaideei bilkurara joate-  
 ko deia egin diete.

IRURA ▶ ERAIKINAK

# Eliza itxuraberritzeko bidean

San Miguel parrokiaren eraberritze proiektua egina dago, eta orain dirua biltzeko kanpaina burutzen ari dira

IMANOL GARCIA

San Miguel parrokiaren eraberritze proiektua martxan da. XV. mendeko eraikinean, gotiko estilokoa, hainbat berritze lan egin behar dituzte eta aurrekontu handia suposatzen du horrek. 570.000 euro inguruko (95 milioi pezeta) aurrekontua du Patxi Ibarrondo arkitekto donostiarrak egindako proiektuak. Eginbeharreko eraberritze lanak paper gainean daude zehaztuta, baina orain finantziarioa lortzea falta da. Lau pertsonen San Miguel elizaren eraberritze lanen inguruko batzordea osatu dute —parrokoak eta hiru sekularrak— eta egun beren zeregin handiena beharrezko finantziario hori lortzea da.

Erakundeetara jo dute batzordeko kideek. Gipuzkoako Foru Aldundira, esaterako, orain bi urte aurkeztu zuten proiektua, baina itxaron zeregindan egon behar izan dute. Orain, «2006ko aurrekontuetan sartuko dutela adierazi dute», dio Joxi Lasak batzordeko kideak. Foru Aldundiko Kulturara sailak 210.000 euro inguru emango ditu. Beste erakunde batzuekin ere hizketan ari dira batzordekideak. Irurako Udalak konpromisoa hartu du laguntza emateko. «Oraindik ez dago zehaztuta kopurua eta bilera bat egiteko gaude Udalarekin», azaldu du Lasak. Kutzarengana ere jo dute diru laguntza bila eta espero dute kopururik lortzea. «Txosten bat aurkeztu behar dugu proiektuari buruzko informazioarekin. Aurten eraman nahi dugu memoria hori, datorren urtean diru laguntza jasotzeko». Gotzaitegiak ere proiektua diruz lagunduko duela espero dute.

Erakundeek gain, herritarrengana ere jo dute finantziario bila. «Herriko festetan martxan jarri genuen kanpaina. Ikus-entzunezko bat erakutsi genuen, berritzeko premia zuei azalduz», dio Lasak. Familia bakoitzak hilerio 12 euroko kuota ordaintzea proposatu dute. «200 familia inguru lortzea da helburua. Orain arte pentsatzen genuena baino jende gutxiagok erantzun du», azaldu du batzordekideak. Egundik 30 familia daude kuota ordaintzen. Beste hainbatek diru sa-

rrera finko bat egin dute. «24.000 euro inguru bildu dira orain arte», zehaztu du Lasak, eta mezu bat helarazi nahi dutela azaldu du: «Eliza ez da eraikin soila, bizia duen leku bat baizik. Bertan gure bizitzako hainbat ekitaldi garrantzitsu egiten ditugu: bataioak, jaunartzeak, ezkontzak, hiletak... Eta horregatik eskatzen dugu jendearen laguntza».

Eraberritze lanak gauzatzeko, «zure konpromisoa eta eskuzabaltasunik gabe, hau guztia ez da posible izango», dio laguntza eskatzeko zabaldu duten triptikoak. Lasak dioenez, kuota ordaintzen ari diren gehiengoak Iruran jaiotakoak dira eta, aurrerantzean, «herri-eraberritzea etorri direngana joko dugu beraien laguntzaren eske, ea animatzen diren. Enpresatara eta Iruratik kanpo bizi diren herritarrengana ere luzatuko dugu kanpaina».

## Berritu beharrekoak

Gune asko daude berritzeko parrokiaren. Nabe nagusiko teilatua aldatu behar da, bai teilak eta bai habeen gaineko oholak ere. Absidearen kanpoko paretak konpondu behar da. «Marga deitzen zaiona harriz eginda dago eta puskak erortzen ari dira», azaldu du Lasak. Konponketa horrek aurrekontuaren erdia hartuko du. Bero-gailuaren eta elektrizitatearen instalazioak ere berritu behar dira. Berogailuak oso indartsu berotzen du, 60 gradutara haitzea jaurtikiz, eta horrek erre-ntaulari kalte egiten dio. Sakristia konponketak behar ditu eta komuna jarriko da. Eraikineraren barruko paretel igeltsu zaharra kenduko zaie eta berria jarri. Azkenik, korurako eta dorrerako egurrezko eskailerekin ere konponketa lanak behar dituzte.

Obrak hiru hilabetetan burutuko direla zehazten da proiektuan eta udaberrian —apirilean edo maiatzean— hastea espero dute batzordekideek. Bitartean, elizkizunak Herri Ikastolako aretoan emango dituzte. Batzordearen izenean, Joxi Lasak deialdia luzatu du jendearen laguntza eskatzeko eta gogoratu du elizaren sarrean, taula batean, bildutako finantziarioari buruzko informazio eguneratua jarrita dutela.



Elizaren absidearen kanpoko aldeak konpontzeak aurrekontuaren erdia hartuko du. I. GARCIA

## Proiektuari hasiera eman zion erorketa

Orain lau urte gertatu zen. Aldarearen parean, eskubian dagoen leihoa estalita zegoen tabike batekin. Tabike hori guztia erori egin zen. «Esker-erakunde horretan elizkizunik ez zegoen», dio Joxi Lasak. Tri-kotez osatua zegoen tabikea eta norbait azpian harrapatuz gero, zauri larriak izateko arriskua zuen.

Tabikea erortzean bi erre-ntaulari, aldarearen atzean dagoen nagusiari eta eskuinean dagoenari kalteak eragin zituzkien. Gainera, azpian harrapatu zuen aukia guztiz txikitu zuen. Gertaera horren ondoren, eraikinak zituen arazoak aztertzen hasi ziren eta ohartu eraberritzeko premia zuela. Leihoko tabikearen erorketak, beraz, eman zion hasiera eraberritze proiektuari. ◀



Goian, eskuinean, estalita zegoen leihoaren egungo egoera. I. GARCIA

## ALEGIA ▶ ADINEKOAK



Alegiako zaharren egoitzan egindako jatordu batean. HITZA

# Aurten zuzendaritza taldea izango du jubilatuen egoitzak

Urtebetez zuzendaritzarik gabe egon ostean, aurten talde berria ariko da; Santos Irazustabarrena da lehendakaria

## NEREA URBIZU

Urtero bezala, aurten ere Alegiako zaharren egoitzan batzarrak egin berri dute. Zuzendaritza berria proposatzea zen ardatzetako bat, urte oso bat zuzendaritzarik gabe eman ostean; eta, azkenean, berria aurkeztu egin dute. Zuzendaritzan lau rol edo kargu ezberdin daude: lehendakaria, idazkaria, diruzainak edo kudeatzaileak eta, azkenik, bokalak.

Hau da, hortaz, jubilatuen elkartearen zuzendaritza berria: Santos Irazustabarrena da lehendakaria, Jose Luis Alustiza

## ZUZENDARITZA ▶

Hauexek izango dira aurten Alegiako jubilatuen egoitzaren zuzendaritzan lanean ariko diren herritarak:

**Lehendakaria.** Santos Irazustabarrena.

**Idazkaria.** Jose Luis Alustiza.

**Diruzainak.** Mari Cruz Urrestarazu eta Gloria Fernandez.

**Bokalak.** Jose Luis Arnedo, Izaskun Lasa eta Juan Antonio Azpilgain.

idazkaria, Mari Cruz Urrestarazu eta Gloria Fernandez diruzainak, eta bokalak Jose Luis Arnedo, Izaskun Lasa eta Juan Antonio Azpilgain.

Bestalde, urtero bezala, mus txapelketa, eskoba eta puntu txapelketak antolatatu dituzte. Izen-ematea egoitzan bertan egin behar da, hilaren 31 arte. Urteko kuotak ordaintzeko epea ere astelehenean ireki zuten, eta otsailaren 3a arte egongo da zabalik, 11:00etatik 12:00etara. Oparia ere eman izaten ohi dute, baina horretarako kuota ordaindu egin behar dela gogoratu dute.

## IKAZTEGIETA ▶ OBRAK

## Kiroldegiko teilatua berrituko dute otsailaren 6tik martxora bitarte

## N.URBIZU

Ikaztegieta kiroldegiko teilatua oso egoera txarrean dago. Eraikuntzaren bigarren soilaruko itokinak gero eta handiagoak dira, eta eskaintzen diren beste zerbitzu batzuk ere kalteak daude. Hala, segurtasun neurriengatik, guztiz beharrezkoa ikusi dute teilatua kon-

pontzea. Lan hauek kontratatu baino lehen finantziario iturriak bilatu behar izan du Udalak, eta aurkitu ondoren lanek irailerako amaituta eta ordainduta egon behar dute.

Lanak otsailaren 6an hasiko dirala jakinarazi du Udalak, eta martxoaren 26ra arte luzatuko direla ere uste du. Hortaz, ezinezkoa izango da honako leku

hauen erabilera obrek irauten duten bitartean: frontoia, KZgunea, liburutegia, mediku gela eta gizarte langilearen bulegoa.

Hortaz, egutegi eta ordutegi berean herritarrek Alegiako mediku zerbitzua eta gizarte langile zerbitzua erabili behar duzela azaldu dute udal ordezkariak.

## AMEZKETA ▶

## Euskara elkarteak laster fruituak jasoko ditu

Beste bilera batera deitu dute: bihar, 18:30ean, balio anitzeko gelan



Aurreko bilera batean. N. URBIZU

## N. URBIZU

Amezketako euskara elkarte berriak asmo berriak aurkeztu ditu. Jakina da duela hilabete pasatxo hasi zirela asmo hauekin. Euskara elkarte honek ez du euskararen egoera soilik jorratu nahi; funtsean, euskal kultura ere aztertu eta hobetu egin nahi du. Azken urte hauetan, Euskal Herriko hainbat herritar jende kanpotar asko etortzen ari da, eta gehienek ez dute euskal kulturaren eta euskara ikasteko bide apropos eta errezik. Herriak ez daude ere horretarako prestatuak. Baina, orain hori errealitate bat da, eta Amezketan ikusten den zerbait da: herri euskaldun honetan jende kanpotarra dago, eta euskara ikasi nahi dutenek ez dute baliabide nahikorik. Horregatik eta horretarako, besteak beste, sortu berri den talde honek errealitate horri aurre egin nahi dio.

Badira beste hainbat faktore landu eta hobetu daitezkeenak, baina hori «laguntzarekin eta gogoekin lortzen den zerbait da», bilera batean zioten bezala.

Orain arteko bileretan jendea gogotsu ikusi da, motibatuta. Bultzada hori emateko prest dagoen jendea da. Ideia berriak proposatzen ari dira eta ziurrenik egingen dira, baina aurrerago ziurtatuko dituzte. Hasteko, beste bilerarako deia egin dute: bihar, 18:30ean, balio anitzeko gelan.

## ALTZO ▶

## Ardo dastaketa ikastarorako izen-ematea amaitzean

Cebanc-Cdea profesionalentzako formazioaz arduratzen den eskolaren bidez, ardo dastaketa ikastaroa otsailaren 14ean hasiko da Altzon. Eskolak apirilaren 4an amaituko dira, eta ondorengo ordutegian izango da: asteartean, 20:00etatik 22:30etara, Elordi elkartearen. Ikastaroa doan izango da eta gehienez 15 laguneko taldea osatu ahal izango da. Aurrez izena emandakoez gain beste interesaturik balego, inprimakia udaletxean jaso dezake.

## ALEGIA ▶

## KZgunean tutorearen bisita izango dute bihar

Bihar, KZguneko tutorearen bisita izango dute Alegian, 16:00etatik 20:00etara. Bertan, *Seguritatea eta babestekotasuna* mintegia landuko dute, 17:00etan hasita.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

**Garraioak.**

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

**Besterik.**

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrarmendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

IBARRA ▶ GIZARTEA

# Zergatik izan boluntario?

Gobernuz Kanpoko Erakundeen ordezkariekin mahai-ingurua egin zuten atzo Uzturpeko ikasleek; gaur hitzaldia izango da, eta bihar musika eta dantza



Eskualdeko GKEetako ordezkariak izan ziren atzo ikastolan. I. T.



Ikasleek arretoa handia jarri zuten euren azalpenetan. I. TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

**N**ola sortzen dira boluntario taldeak edo GKEak? Nola hartu daiteke horietan parte? Zergatik izan boluntario? Nola erabakitzen dute zein lurralderi lagundu? Zer sentsazioekin geratzen zara zure laguntza eskaintzean? Nola lagundu daiteke hemendik? Hizkuntza arazo izaten al da laguntza eskaintzen duzun lurraldeetako herritarrekin komunikatzeko? Pobreziaz ba al du amaierarik?». Horrelako galderak egin zizkieten atzo Ibarako Uzturpe ikastolako ikasleek *Bolondresak* ma-

hai-inguruan parte hartu zuten elkarte desberdinetako ordezkari. Bertan izan ziren Ibaratik Misio Taldeko Xabier Aierza, Tolosaldea Sahararekin elkarteko Elixabete Eizagirre eta boluntario lanak egin dituzten Ana Sanz eta Ainhoa Arregi. Bakoitzak bere esperientziaren berri eman, eta ikasleek ziztuzten zalantzak argitu zituzten. Halaber, mahai inguruarekin hasi aurretik, Calcuta Ondoan elkarrekin eginiko Indiar buruzko ikus-entzunezkoa ikusteko aukera izan zuten ikasleek; erreportai horrekin, elkarre hori lurralde hartan egiten ari den lana, eta lurralde

haren egoera ezagutzeko parada izan zuten.

Uzturpe ikastolak antolatutako VI. Kultur Astearen baitan zen atzoko ekitaldia. Gaurko egitarauari dagokionez, *Haurren hizkuntza nola sustatu* hitzaldia izango da, 18:30ean, Marta Fernandez logopedaren eskutik. «Erlazioak erraztasunez ematen dira sentimenduetan, nahiak, desioak... adierazteko eta besteek esaten ditugutena ulertzeko gai izanez gero, baina gaitasun hori berezkoa ez dugunez, zer egin dezakegu gure haurren hori garatzen laguntzeko?». Gai horren inguruan jardungo dute

gaur Benito Izagirre kultur etxean.

Bihar emango diote amaiera aurtengo Kultur Asteari. 20:00etan, Kultur Etxean, Jone bakarlarri anoetarraren kontzertua izango da, eta 22:00etan Alurr dantza taldearen saioa, Belabieta kiroldegian. Uzturpe ikastolak gurasoen laguntza eskatu du saioaren amaieran desmuntatze lanak egiteko, eta aurrez eskerrak eman nahi dizkie laguntzagatik.

Bestalde, gaur eta bihar ikusgai izango da Kultur Etxean auroren inguruko erakusketa. Aranzadi zientzia elkarte-kristina Azurzaren eskutik.

BERASTEGI ▶

## Pintxo ikastaroa atzeratu egin dute

Urepele elkartearen egitekoak ziren pintxo ikastaroa atzeratu egin dutela jakinarazi dute eta, ondorioz, hasiera eguna otsailaren 7an izango du. Egun horretatik martxoaren 30a bitarte iraungo du ikastaroak. Astearteetan eta ostegunetan izango da 18:30etik 21:00etara. Urepele elkartearen. Izena emateko azken eguna igandea, hilaren 29a izango da. Eskualdeko 25 urtetik gorako herritarrek eman ahal izango dute izena. Ikastaroa doan izango da, eta Berastegiko udaletxera, Zelai tabernara edo Onda janari dendara jo beharko da izena emateko.

IBARRA ▶

## Leabururako errepidea itxita gaurtik aurrera

Ibarako Udalak jakitera eman duenez, gaurtik aurrera, Apaiz-Erreka ubidea egokitze lanak direla eta, Leabururako errepidea itxi egingo dute lehenengo zenbakiairean parean, Menendez etxean, bi hilabete inguruko iraupenarekin.

IBARRA ▶

## Sokatira taldeak deialdi berezia egin du biharko

Ibarako sokatira taldeak deialdi berezia egin du biharko, «sokatirarako afizioari eusten lagundu asmoz». Hala, Tolosaldeko gazte guztiei, neska zein mutil, eurekin biltzeko gonbita luzatu die bihar, 19:30ean, Ibarako Belabieta kiroldegian. Jari duten baldintza bakarra kiroldegira ilusioz eta ikasteko gozoz joatekoa da.

ASTEASU ▶

## 'Soinujolearen semea' itzuli dute Niderlanderara

Bernardo Atxagak idatzitako *Soinujolearen semea* eleberria niderlanderaz kaleratu du Nijgh & Van Ditmar argitaletxeak. Johanna Vuyk-Bosdrieszek itzuli du eta *De zoon van accordeonist* izenburupean plazaratu dute.

IBARRA ▶ GIZARTEA



## Marisol Ruiz moja misiolariaren bisita jaso du Misio Taldeak

I. Terradillos ▶ Ibaratik Misio Taldeak bisita berezia izan zuen iragan igandean, Marisol Ruiz Lanchas mojarrena, hain zuzen ere. Palentzian (Espainia) jaiotako mojak urteak daramatza misioetan lanean, eta Euskal Herrira egindako bisita Ibaratik Misio Taldeko kideekin egoteko baliatu zuen. Hala, meza nagusian parte hartu

zuen eta, amaitu ostean, hamaiketako hartu zuen mojak taldeko kideekin batera. Lurralde txiroetan bizitako esperientziaz hitz egin zuen misiolariak, eta misio taldeko kideak euren proiektuez aritu ziren. Argazkian, ezkerrean, moja misio taldeko kide batekin solasean; eta eskuinean, hamaiketakoaren une bat. HITZA

ARESO ▶ KARNABALAK

# Bihartik, Areson mozorroak nagusi

Bihar iluntzean hasi eta igandera arte, Karnabalak izanen dituzte Lagun Artea elkartearen eskutik, besteak beste

JAIONE ASTIBIA

Eta Inauteriz Inauteri gabiltzala, bihar Areson hasiko dira Karnabalak. Asteburu oso osoa zain dute bai Lagun Artea herriko gazteen elkarteak, Inauterien antolatzailea dena bestalde, eta gainerako herri-tar guztiak ere.

Eskeak, otorduak eta «disfraz lehiaketa» izanen dituzte nagusi, musika eta umorearekin batera, noski, aurtengo Karnabaletan ere aresoarrek. Bihar gauean, Lagun Arteakoek eginen duten afariak ematen die hasiera jai egunei: musikaz lagunduta, norberak eramandako jatekoa mahai gainean izanda, astebururako herrira itzuli direnak, herrian bertan egoten direnak, gazteak denak, biltzeko baliatzen dute eta biharamoneko egunaz azken prestakizunak egin eta gozatzen hasteko. Izan ere «base-rritako eskea» baitute gogoko-enetakoa, eta larunbatean gosalduta ondoren aterako dira, baserri-erri festa eramanaz, eta etxekoek eskainitako jaki goxoak jan-edanez. Eta gau horretan bertan Pake Toki elkartearen eginen duten herri-afaria ere ez dute bazterrerara uzteko: Lagun Arteako kide guztiak ia gai baten inguruan mozorrotzen dira, eta paperean ederki sartuta, afarira bildu-

## KARNABALAK ▶

### BIHAR, OSTIRALA

15:00. Eskolako kalejira.  
21:00. Afaria, Lagun Arteakoek.

### ETZI, LARUNBATA

09:00. Gosaria, Lagun Arteakoek.  
10:00. Eskea baserrietara.  
15:30. Eskelarien bazkaria.  
18:30. Musika, plazan.  
21:30. Herri afaria, Pake Toki elkartearen.  
Ondoren. Musika eta disfraz lehiaketa.

### IGANDEA, HILAK 29

09:30. Gosaria.  
10:00. Eskea, herrian.  
14:30. Bazkaria eskelariak.  
19:00. Musika, plazan.

takoen gune izanen dira, aurtien auskalo zertaz jantzita. Musika eta «disfraz lehiaketa goizaldera arte» iragarrita daude.

Igandean, herriko eskea eginen dute, eta hemen ere etxe-etxe ibiliko dira, atariak musikaz eta kolorez betez, eta puska goxoak janez. Iluntze aldera, Jaione eta Jon bikotearen esku egonen da plazako musika.

Edozein moduz, horiek guztiak baino lehen, bihar arratsaldean bertan, 15:00etatik



luz pirataz mozorrotu ziren eskolan eta arratsalde ederra igaro zuten elurra elur. Aurtien ere bai. J. ASTIBIA



Eta Lagun Artea gazteen elkarteak ere, zer esanik ez: eskeak, otorduak, lehiaketak... J. ASTIBIA

aurrera, eskolako txanda izanen da, «gurasoak ere gonbidatuta» dauden kalejira eginen dute, eskolatik bertatik atzo jakinarazi zuten. Aurtien, indioz jantziko dira guztiak; le-

hendabizi *Altxorren bila* joan eginen dute, eta ostean trikitilarien laguntzarekin herriko kaletan barrena ibiliko dira. Gero txokolate beroa hartuko dute, elkarte batean.

Horrela, bihar arratsaldeko aurreneko orduetatik hasita, hurrengo hiru egunetan, kolorea eta, lehenaz gainera, umore ona jabetuko dira herriaz: «Gu, joanen gai! Eta zuek?».

PRESOAK ▶

## «Behingoz» konpon dadin

Euskal preso politikoen eskubideen defentsan, elkarretaratzeak bihar

J. ASTIBIA

Bihar, hileko azken ostirala, herri herri elkarretaratzeak egiteko deialdia egin du Etxerat elkarteak, beste behin, eta besteak beste, Leitzaldean eta Tolosaldean ere bat egin dutelarik, ohiko leku eta ordutan egitekoak dituzte.

Biharko bilkuretan «euskal preso politikoen eskubideak errespetatzea, euren estatus politikoa aintzat hartzea eta Euskal Herriratztea» izanen dituzte aldarri, Etxerat elkarteak



Bihar ohiko elkarretaratzeak. J. A.

astehenean prentsaurrean egin zuen agerraldian jakinarazi zuenez. Euskal preso politikoen senideek adierazi zuten jada ez dakitela «nola esan, Euskal Herriko 670 seme-alaba presoek eratzten duten kolektiboak jasaten dituen behin eta berrizgo eskubide urraketak, osasunarena, ikastearena, herriratzeara... izaera politikoaren ukatzea erabatekoa dela Espainiako eta Frantziako Estatuetak kartzeletan». Zazpi testigantza plazaratu zituzten, «kartzeletako eguneroko

bizimoduaren isla» direnak eta «estatuaren kartzela politika bortitza agerian» uzten dutenak. Zentzu horretan, «Euskal Herriko herri guztiak eta bakoitzeko politikariei» dei egin zieten «gure senideek jasaten dutena bertatik ikustera kartzeletara joan daitezten». Horren harira Ibaetako foroak atzo bertan plazaratu zuten herri handienetako alkateekin elkartzeko asmoa.

Behin eta berriro salatzen ari diren egoera honen gainean, errepresaliatuen senideak gogaituta daudela adierazi zuten: «Hiitz egin asko egiten da, baina egin, gutxi». Horrela, «kartzela politika zikoitz honi, elkarlanean aurre egiteko», elkarretaratzeetan parte hartzeko deia zabaldu zuten Etxerat-ek.

Tolosaldean eta Leitzaldean, bi eskualdeetan, ohiko lekuetan elkartzeko deiak egin dituzte: 19:30ean, Alegian, Amezketan, Anoetan, Ibarren eta Tolosaldean elkartekoak; 20:00etan, Adunan, Asteasun, Ikaztegiatan, Leitzan, Lizartzan, Villabonan eta Zizurkilen.

### iragarki laburrak ▶

#### LANA

**Gidaria.** Gidaria behar da ADR-arekin, Espainian eta Hego Euskal Herrian zeharrek garraiorako. Lan finkorako aukera handiak. 607 58 41 39. **Ileapaintzailea.** Ileapaintdegia irekitzeko bazkidea behar dut. 617 57 91 46.

**Harpidedunei banatua ▶ 2006ko urtarrilaren 26a, osteguna ▶ IV. urtea**

GAURKO EGURALDIA	goizez  arratsaldez	beroena <b>10</b> hotzena <b>04</b>	BIHARKO EGURALDIA	goizez  arratsaldez	ELURRA ARALARREN	Guardetxe: gaur: bai / bihar: bai	Pagomari: gaur: bai / bihar: bai	Gipuzkoako Foru Aldundia	Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila	HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalatuz argitzeko...)	<b>943 30 43 46</b>
------------------	---------------------	-------------------------------------	-------------------	---------------------	------------------	-----------------------------------	----------------------------------	--------------------------	------------------------------------	--	---------------------

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** Oroimen tailerra antolatuta du Udalak otsailaren 7tik maiatzaren 30era. 15 ordu dira, asteartean, 11:00etatik 12:00etara. Izen-ematea zabalik, Kultur Etxean (943 65 46 98).

**Altzo.** Ardo dastaketa ikastarorako izen-ematea, udaletxean.

**Anoeta.** Otsailaren 5erako Basagain ehiza elkarteak antolatuta duen ehiza txiki txapelketarako izen-ematea 686 25 75 08 edo 943 33 21 33 telefono zenbakietan, 20 eurotan.

**Ibarra.** Otsailaren 4an, Santa Ageda bezperan, kantari ateratzeko eta bazkarira joateko izena eman daiteke herriko elkarte eta tabernetan. Entseguak hilaren 31n eta otsailaren 2an, 20:00etan, udaletxe azpian.

**Tolosa.** Alde Zaharreko bizilagunen batzarra. 20:00etan, Santa Mariako parrokia etxean.

**Tolosa.** Kutxak diruz lagundutako dantza ikastaroak antolatuta dituzte Izaskun Arriolaren zentroan, Idiazkez Jauregian. Izen-ematea, 690 18 96 49an.



**Inauterietarako prestaketatan murgilduta**

**TOLOSA ▶** Gero eta gutxiago gelditzen da Inauterietarako, eta herria prestaketatan bete-betean da honezkerok. Aiz-Orratz elkartekook, esaterako, deialdia egin diete Zaldunita Bezperako haur danborradan kosakoz dantzatzan atera nahi duten neskei. Etzi, larunbata, izango dute lehendabiziko entsegua: parte hartu nahi duenak Pablo Gorosabelgo entzutegian agertu behar du, 15:30ean. Gaur, berriz, beste bilera batera deitu du Jai Batzordeak, 19:00etan, Kultur Etxean; txarangei buruz ariko dira bertan. Bestalde, karroza eta konpartsen izen-ematea zabalik jarraitzen du Aranburu Jauregian, otsailaren 10a bitarte. N. LATARBURU

Izagirre kultur etxean. VI. Kultur Astearen baitan.

**Tolosa.** Jon Enparantzak hitzaldia emango du udalbatzar aretoan, 19:00etan. Gaia: *Pello Odriozola preso tolosarrak 18 urte bete ditu kartzelan.*

**MUSIKA**

**Tolosa.** Areak eta Desoreka taldeen kontzertuak. Bihar, 22:30ean, Bonberenean.

**ZINE-KLUBA**

**Tolosa.** Niki Caro zuzendariaren *Whale rider* filma. 21:30ean, Gaztetxean. Sarrera: 2 euro.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**

**Ibarra.** Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

**Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

**IRRATIA**

**Txolarre Irratia (107,5, 101,2 FM)**

**11:00-14:00.** *Tolosaldeko ahotsa* magazina. Eguraldia Joxe Landarekin, agenda, albisteak, elkarrizketak, lehiaketa, disko eskainiak...

**19:00-21:00.** *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).

**21:00-22:00.** *Gara Euscadi Txistulari*, Mtraiaiko Irratiaren saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.

▶ **HITZAK** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Ana Ansorenaren zeramika lanak, Jubilatuen tabernan.

**Hernalde.** Anselmo

Elizalderen koadroak, Ostatu tabernan.

**Tolosa.** Luis Mari Nuñez lanak. Otsailaren 25a arte, Aranburu Jauregian.

**Tolosa.** Alejandro Tapiaren

koadroak. Etzi arte, Aranburu Jauregian.

**Tolosa.** Jose Luis Albizuren margolanak, Lanbroa tabernan.

**Tolosa.** Txaro Medranoren artelanak, Saikin tabernan.

**HITZALDIAK**

**Ibarra.** *Hizkuntza nola sustatu zuen seme-alabengan* hitzaldia eskainiko du Marta Fernandez logopedak. 18:30ean, Benito

**AGURRAK ▶**



Segi horrela urte askoan.

**HITZA, zorion agurren tartea**

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberrak... zorianzeka, etorri:

HITZAren egoitzetara: Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!



**ZORIONAK, AITONA**  
 Bartolome Tolosa (Tolosa). Ander, Axier, Oihana eta familia guztiaren partetik.



**URTE ASKOAN**  
 Joseba Rojas Gracial (Alegia). Gaur urtebete. Zorionak aitabxo, amabxo eta familiaren partetik.